

MENDIZALETASUNERAKO PRAKTIKA ONEN DEKALOGOIA

Mendian ere errespetuz

- 1. Saiatu mendira joateko garraio publikoa erabiltzen. Ezin bada eta ibilgailu propioa baliatu behar bada, aparkatu horretarako prestatutako tokietan.**
- 2. Bisitatuko den eremua Babestutako Naturagune bat bada, ezagutzeaz arduratu mendiko kirolen inguruan bertan ezarrita dauden arauak.**
- 3. Saiatu aurrez markatuta dauden ibilbideei jarraitzen, beti ere lur eremu pribatuetatik igarotzea ekidinez.**
- 4. Langa edo ataka bat igarotzean, beti itxita utzi.**
- 5. Mendira txakurrarekin baldin bazoaz, beti lotuta eraman.**
- 6. Mendira bizikletan hurbiltzen bazara, moteldu abiadura baserri inguruetan edo oinezkoren batekin topo egitean.**
- 7. Mendi ibilbide bat egiterakoan, baso-lanetan ari direnen eremu bat gurutzatu behar bada, jakinarazi langileei zein bide jarraituko den eta ez oztopatu beraien jarduna**
- 8. Ez hartu fruiturik zuhaitzetatik, jabearen baimenarekin ez bada.**
- 9. Zaindu ingurune naturala eta bertatik igaro ez bazina bezala utzi.**
- 10. Lagundu landa eremuko ekonomiei eta bultzada bat eman, hango zerbitzuak erabiliz eta bertako produktuak kontsumituz.**